

EZIZENA:ELETXE

HITZAK ORDAINETAN

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua

EZIZENA: ELETXE

Bada, ez bada

Ez zunan, bada, bizitza osoa eraman
amarengan maitasuna ikusi nahian,
haurtzarotik zetozkidanan maitasun sugarrak
gogoratu nahian.

Hil haiz, bada, ez dun gehiago sufrutuko.

Ezin izango zunan jasan,
luzaroago iraun balu.

Bizitza osoa zeramanan, mesfidantzak saihesten
munduaren onen eta txarren
arteko banaketa jasanezina goititzen,
engainuaren eta traizioaren
bilaketa nekaezina ukatzen,
familiarengandik eta bere baitatik
desertatzea erabaki zuen arte.

Sortzailea izaki erabat heldugabea zunan,
gaizki egina eta gaizki amaitua.

Erabat ezindua maitasunerako eta samurtasunerako.

Inguruko gauza on eta eder guztiak
suntsitzeko gai zen izaki torturatua.

Ama ere hil dun,
heriotzak bakarrik aska zezakenan.

Maitalearen hitzak

Aizto zaurituak dira
maitalearen hitzak,
askotan, ustez bigunak eta
kamuts aitortuak bestetan,
Nork esango du maitalearen musuak
amodioaren hizkuntzan
elebakar direnik?

Amok

Umeak ama usaintzen duen eran,
amak umea hartzen duen eran,
umeak bularra laztantzen duen eran,

amen tresnak

odoletan bustita daude,

amok gure minetik

maitatzen baitugu.

Zauriak zeharkatzen gaituen

aire ozpindua dugu askotan lagun.

Gauaren erdian

josten ditugu haurraren indarrak.

Biharko helduek eskergaiztoko

izan ez daitezen

erakutsi, ama,

zure sufrimenduaren iturria.

Hain gozatsua baita ama izatea

eta hain astuna egin ez dena defendatzea.

Desafioa

Batzuetan

bizia egoskortu egiten da,

eta tematu.

Batzuetan, biziak

existentzia ukatzen du tematsu,

ezez eta ezez.

Batzuetan, bizia gai da

etsipenaren ordu makurrak

hozkailean sartzeko

Batzuetan, bizi nahi ez duenari

desafioa jaurtitzen zaio

eta orduan

batzuetan, bizirik dagoenari ez zaio

beste eginkizunik gelditzen

bizitzea baino.

Ermuko Udal Liburutegia / Biblioteca Municipal de Ermua